

DEBAGOIENA / Ekintza ugari Liburuaren Eguna ospatzeko

Gaur, apirilak 23, Liburuaren Eguna da. Egun horren harira, ekintza ugari antolatu dituzte ibarreko herrietan gaurko eta datozen egunetarako. Hemen duzue, herriz herri, ekintzon berri.

ARAMAIO

Apirilak 23, eguna 18:00etan ipuin-kontalaria liburutegian. Ipuin lehiaketako sari banaketa, 19:00etan, kultur etxean.

ARETXABALETA

Aretxabaltan be leidu ekimena.

Apirilak 24, egubakoitza Liburuaren Eguna ludotekan.

ARRASATE

Biblioteca en Guerra erakusketa zabalik dago Kulturaten hilaren 30era arte.

Apirilak 23, eguna: Intelektualak eta antifaxismoa Espainiako gerra zibilean hitzaldia entzun ahalko da Kulturaten, Euskaltzaindiaren bibliotekako zuzendari Pruden Gartziaren eskutik.

Alaitz Muro eta Agurtzane Villateren eskutik, Otsoen kontuak haurrendako ipuin kontaketa izango dira Santa Marinako liburutegian (18:00).

Hezkuntzaren aldeko mundu kanpainaren astearen barne, ekitaldia Arrasateko plazan, 11:00etan.

Apirilak 24, egubakoitza Munduko kontu kontalariak izango ditugu Kulturaten: egubakoitzean, 11:00etan eta 19:00etan.

Apirilak 29, eguaztena: Azken urteetan zeresana ematen dabilen biblioteketako kanona jorratuko duen hitzaldia izango da: Pagar por leer en la biblioteca pública, hain zuzen. Blanca Calvo Guadalajarako biblioteka publikoko zuzendaria izango da hizlaria.

BERGARA

Apirilak 23, eguna

Lupe Lekuona ipuin kontalariak lehen mailako umeei ipuinak kontatuko dizkie. Herriko ikastetxeekin harremanetan jarri dira horretarako, eskola ordutan izango dira-eta emanaldiak.

Seigarren mailako ikasleen artean lehiaketa egin dute. Gazte literaturaren gaineko galdetegi baten oinarritutako lehiaketa izan da. Hala, erantzun egoki gehien egiten dituenak saria jasoko du egunean.

Liburutegia San Martin plazara aterako dute goiz eta arratsaldez. AEDren Literatur Lehiaketen sari banaketa.

ELGETA

Apirilak 23, asteazkena Goizean zehar, bisita gidatuak liburutegira. Arratsaldean zehar, liburuak herriko plazan.

Apirilak 25, zapatua

11:00: Liburuak edozeinek ikusteko moduan herriko plazan
12:00: umeendako ipuin kontalaria, Marije, udaletxeko *ipuin txokoan
17:00: umeendako ipuin kontalaria, Esti, udaletxeko *ipuin txokoan
18:00: helduendako eta gazteendako Kontu Kantoi taldea Espaloian
*Udaletxeko pleno aretoa. Egun horretarako apainduta egongo da

ESKORIATZA

Kataia eten barik egitasmoa.

Apirilak 24, ostirala

18:00etatik aurrera LIBURU AZOKA: 1 ekarri, 2 eruen
18:30 Abesbatzak herriko plazan: Arizmendi abesbatza eta Beheko Errota
musika eskolako abesbatza
22:30 Koldo Amestoyren ipuin kontaketa, unibertsitatean. Hezkuntzaren aldeko
mundu-kanpainaren aldeko ekitaldiak.

Apirilak 27, astelehena

19:00 "Bidaia intimoak" dokumentala, kutur etxean.
Apirilak 28, asteartea 19:00 Jon Maiaren hitzaldia: Extremaduratik euskararen
herrira (Riomundo). Kultur etxean.

Apirilak 29, asteazkena

19:00 Mahai-ingurua: Kanpotik nator, baina bertakoa naiz. Kultur etxean.
Oñati Apirilak 23, eguna Ekitaldi berezia egingo dute liburutegian: alegia,
bildumatik erretiratu dituzten liburuak oparituko dituzte. Liburutegia zabalik
egongo da 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era. Hasiera batean,
liburuak egunean oparituko dituzte, eta soberan geratzen direnak
egubakoitzean. Apirilak 28, martitzena Helduendako ipuin kontaketa saioa egingo
du Jose Mari Karrerek liburutegian, 19:30ean. Hain zuzen ere, Euskal Herriko
zein munduko kultura ezberdinetako ipuinak kontatuko ditu liburutegian.